

## Eskola Kirolak ekin dio ikasturteari

- **Urriko lehen egunekin batera abiatu zen 2024/25 ikasturteko edizioa**
- **Asteburu honetan txirrindularitzako saioa izango dute ikasleek**

**Andoainen, 24-10-18.-** Eskola Kirola egitasmoak eman ditu bere lehen urratsak aurtengo ikasturtean ere. Urtero moduan, herriko hiru ikastetxeetako ikasleak (Ondarreta Herri Eskola, La Salle Berrozpe ikastetxea eta Aita Larramendi Ikastola) ari dira parte hartzen, guztira, LH3.mailatik hasi eta LH6.mailara bitarteko 280 neska-mutiko.

Gogoratuko dugu Eskola Kirolaren helburu nagusia direla haurrak kirolaren praktikara gerturatzea, kirol mota ezberdinak ezagutzea eta hauetan jardutea. Balore ezberdinak transmititu nahi zaizkie ikasleei programa honen bitartez: kirolzaletasuna, praktika osasuntsuak, laguntasuna, lan kolektiboa... Gaitasun fisiko eta lehiaketaren ginetik, ondo pasatzeko, lagunekin egoteko, osasuna zaintzeko, arauak errespetatzen ikasteko, errespetua lantzeko esparrua eskaini nahi zaie partehartzaileei.

Kirol kolektiboak ez ezik, bakarkako kirolak ere landu ohi dira Eskola Kirolean, astean zehar egiten dituzten entrenuen zein asteburuetan izaten dituzten partida edo saio berezituen bitartez. Entrenuekin dagoeneko urriko lehen hasterekin batera hasi ziren ikasleak; asteburu honetan, berriz, lehen saio monografikoa izango dute: **TXIRRINDULARITZA**. Andoaingo Txirrindularitza Eskolak eskainitako ordubeteko saioa izango dute mailaka, goizeko 10:00etan hasi eta 13:00ak bitarte, Ubitarte futbol zelaian (euria egingo balu, Kiroldegiko karpan). Saio berezia izango da oso, Gipuzkoa, Euskadi, Espainia, Europa eta Munduko txapelketetan emaitza garrantzitsuak lortu dituen Andoaingo Txirrindularitza Eskolako emakumezkoen taldeko partaideak izango baitira bertan.

Hortik aurrera, maiatzera bitarteko egutegia izango dute ikasleek, eta besteak beste, eskubaloia, xistera, saskibaloia, arte martzialak, irristaketa, atletismoa, mendi orientazioa eta futbola praktikatu dituzte. Aurten, berezitasun gisa, Axer Dantzan murgiltzeko aukera ere izango dute larunbat batean.

Udal gobernua, edonola, etengabe ari da lanean hiru ikastetxeekin Eskola Kirola hobetzeko.